

OHIKO OSOKO BILKURA 05/12

UDALAK 2012ko APIRILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Jose Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko apirilaren 24an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bileran Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Aitziber Ezkerra Segurajauregi idazkarioordea.

KONTU HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Aitziber Ezkerra Segurajauregi and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2012-02-28. - 2012ko otsailaren 28an egindako bileraren akta onartu da.

2.- 2012KO MARTXOAREN 24TIK 2012KO APIRILAREN 19RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2012ko martxoaren 24tik 2012ko apirilaren 19ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- TXANTXILLAKO ETXEBIZITZA HITZARTUEN ESLEIPENDUN BAT ORDEZKATZEKO PROPOSAMENA. – Alkate-lehendakariak aditzera eman du UTE Txantxillak etxebizitza hitzartuetako esleipendun gertatutako baten aldaketa proposamena egin duela.

Iñaki Arratibelek (H1!) hitza hartu du: Hasieran jarri ziren baldintzekin ez ginen ados, eta kontra bozkatuko dugu.

Alkate-lehendakariak Hirigintza eta Ingurumeneko Batzorde Informatzailearen irizpenaren bozketa egin du:

- Aldeko botoak: 12 (Bildu eta EAJ/PNV).
- Kontrako botoak: 3 (2 Euskal Sozialistak eta 1 H1!).
- Abstentzioak: Bat ere ez.

Beraz, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

- 1.- Txantxillako etxebizitza hitzartuen esleipendun gertatu zen Maddi Garmendia Barrenecheak esleipenari uko egin izana onartzea.
- 2.- Etxebizitza horren esleipenduna den Garazi Garmendia Barrenechea onartzea.

4.- CEP URUMEAKO GAY-MUR PARTZELAKO ((HH) LI.01) XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK AURKEZTUA. - Alkate-lehendakariak gaia azaldu ondoren Hirigintza eta Ingurumeneko Batzorde Informatzailearen irizpena ikusita, hau erabaki da aho batez:

- 1.- (HH) LI.03 eremuan dagoen Urumea ikastetxe publikoaren Gay-Murreko lursailaren Xehetasun Azterlanari behin betiko onarpena ematea. Baldintza hauekin:

Proposatutako handitze lanetan gaur egun beheko solairuan dagoen portxea mantendu beharko da. Zati hori ezin da itxi.

- 2.- Behin betiko onartzeko erabaki hau GAOn argitaratzea.

5.- LH-15.6 ETA LH-16.8 EREMUKO (SAGASTIA) URBANIZAZIOAREN LEHEN FASEA JASOTZEKO ESKAERA, EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAK AURKEZTUA. - Alkate-lehendakariak gaia azaldu ondoren Hirigintza eta Ingurumeneko Batzorde Informatzailearen irizpena ikusita, hau erabaki da aho batez:

- 1.- LH-15.6 eta LH-16.8 eremuko (Sagastia) urbanizazioaren lehen fasea hartzea.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordekoari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

6.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) PLAN ESTRATEGIKOA (2012-2015) ETA KUDEAKETA PLANA (2012). – Alkate-lehendakariak gai zerrendan sartutako gaia, Batzordearen irizpena egun bat lehenagokoa izanik.

Alkate-lehendakariak gaia zaldu du: hemen egiten dena da, aurreko batean udaletxeko plenoak onartu zuen euskara biziberritzeko plan nagusirako diru laguntzetako deialditan parte hartzea, eta hemen egiten dena da gure euskara planak, nolabait udalak duen plana egokitu euskara biziberritzeko planaren parametroetara nolabait esateagatik.

Ondoren gaiaren bozketa egin da:

Aztertu da Euskara batzordeak 2012ko apirilaren 23an emandako irizpena.

Alkate jaunak bozketa egin du. Hona hemen emaitza:

* Aldeko botoak: 13 (9 Bildu, 3 EAJ/PNV eta 1 H1!).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: 2 (Euskal Sozialistak)

Beraz, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

* Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren Plan Estrategikoa (2012-2015) eta Kudeaketa *plana (2012) onartzea.*

7.- UDAL EUSKALTEGIEN MOZIOA. - Alkate-lehendakariak hau azaldu du: Mozio hau udal euskaltegien inguruan Bilduk prestatutako mozio bat da.

Nahiara Sanchiz euskara zinegotziak mozioa irakurri du:

UDAL EUSKALTEGIEN AFERA

Udal Euskaltegiak, azken garai hauetan bizi duten diru murrizketa dela eta Hernaniko Udalak ondorengo adierazpena onartu eta ondorioak jaurlaritza eta HABEri helarazi nahi dizkio:

Udal Euskaltegiak, azken urte hauetan, diru-laguntza gutxiago jasotzen ari dira. Murrizketak, Udal batzuetan handiak izan dira eta Udalak, Euskaltegi hauen biziraupena ziurtatu nahi dutelako, diru murrizketen zama bere gain hartu behar izan dute. Ondorioz, Udal bakoitzak, Udal Euskaltegien lana eta jarraipena ere egokitu behar izan du, erabaki propioak hartuz. Epe motzean, murrizketek jarraitzen badute, Udal Euskaltegien jarraipena arriskuan egon liteke.

Udal Euskaltegiak 80. hamarkadan sortu ziren. Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea helburu zuelarik. Harrezkero, Euskararen normalizazioari laguntzeko (gainontzeko euskaltegiekin batera, Aek, Hika...) eta erdaldunak euskarara biltzeko lan asko egin dute.

HABEk lagundu ditu diruz eta ordura arte ez zegoen Euskaltegi publikoen sarea sortu zuten. Udalek ere diruz laguntzen dituzte, irakasleriaren kontratazioan, gizarte asegurantzaaren gastuetan, e.a ...

Jaurlaritzaren (pse) gobernu aldaketarekin batera, Udal Euskaltegiak diru-laguntzen murrizketak pairatzen hasi ziren. Jaurlaritzak, Nazio Hizkuntza Euskararekin zer egin asmo duen eta zein estrategia erabiliko duen argi erakusten du. Bere estrategia suntsitzailarekin, Udal Euskaltegiak

itoarazi nahi ditu diru-laguntzak murriztuta. Argi dago, (pse-rentzat) egun, zama ekonomikoa direla eta finantziazioaren zama Udalen gain utzi nahi duela. Jaurlaritzak eta HABEk eskuak garbitu nahi dituzte.

Euskaltegien geroa ziurtatzeko, Udalak beraiei ez dagozkien erantzukizunak hartzea behartu nahi dituzte, beste behin ere itoarazi nahi dituzte. Udal Euskaltegiak, publiko izaerarekin jaino ziren eta Euskal Herria euskalduntzen jarraitzeko duen erantzukizunagatik, publiko izaten jarraitu behar dute eta Jaurlaritzak, bere osotasunean lagundu behar ditu diruz.

Argi dago, auzi honetan, Euskara Nazio Hizkuntza dela erdigunean dagoena. Jaurlaritzaren eta PSEren estrategia politikoaren baitan kokatzen den hizkuntza politikari erantzuten diola HABEren diru murrizketak. Euskaltegi publikoen bideragarritasunean duen ardurari uko egin eta hau Udalen bizkar utzi nahi izatea. Eskaintza publikoa eta sektore publikoaren kaltetan, pribatizazioaren bidea bultzatuz, lanpostu publikoak desagerraraziz.

Ondorioz:

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzean Jaurlaritzak eta HABEk duten ardura garbia da: Udal Euskaltegien finantziazioa bere gain hartu behar dute, publikotasuna ziurtatu eta doakotasunaren bidean urratsak eman.

Udalen ardura politiko, herrietako egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, normalizazioa helburu duten egitasmo eta ekintzak sustatzea eta herritarrak laguntzea izan behar du, ez dakitenek euskara ikas dezaten bultzatzeko eta euskaldunak alfabetatzeko. Diru-laguntza politika herrietako eskaintza aztertu eta egokitu ondoren, ahalbideratzeko neurriak bultzatuz.

Tokian tokiko euskalgintza eta eragile politiko eta sozialak bat eginik, euskararen egoerari buruzko eztabaida soziala ireki eta kaleratu behar dugu. Guztion artean, Euskararen beharrezkotasuna bultzatu eta European euskararen herria berrezarri behar dugu. Euskararen aldeko kontzientziazio eta sensibilizazio lana berpiztu behar dugu, hizkuntzaren defentsan indarrak eta ahaleginak bilduz.

Udal Euskaltegiek, euskalduntze alfabetatzeari ekarpen handia egin diote eta etorkizunean ere, Euskal Herri Euskalduna lortu arte, gainontzeko mugimenduekin elkarlanean (AEK, IKA...), aliantzak eta sinergiak bilatuz, erdaldun euskaltzaleak bildu, saretu eta euskalduntze prozesuan aritzeko bideak bultzatuko dituzte.

Euskal Hezkuntza sistemaren barruan Helduen Euskalduntze Alfabetatzea txertatu behar da eta publikoa eta doakoa izan behar du. Ezin dugu diru murrizketarik onartu eta ezin dugu Udal Euskaltegi bakar bat ere ixten utzi. Euskaltegi bat ixtea, herri bateko eskola bat ixtea bezala da eta hori eskandaluzkoa eta larria litzateke. Onartezina!

Udal honek, honako puntu hauetan oinarritutako adierazpena onartzen du

1.- Udal Euskaltegien inguruan sortu den auzi honen erantzule eta arduradun politikoak Jaurlaritza eta HABE dira. Urteetan zehar Udal Euskaltegiek egindako lana kontutan izanik, hauen etorkizuna arriskuan jartzerik ezin dugu onartu.

2.- Udal honetatik, Jaurlaritzari eta HABEri, behar diren baliabide ekonomiko eta politikoak jartzeko, dagozkien arduraz erantzuteko, eta zama ekonomikoa Udalen gain ez uzteko eskatzen diegu.

3.- *Ezin dugu, Euskarari eraso txikiarik egiten utzi eta onartu. Euskal Herri osoari eta bereziki euskararen aldeko mugimenduari, euskararen aurkako erasoei aurre egiteko deia luzatu nahi diegu.*

4.- *Hernaniko Udalak, Udal Euskaltegien auziari, ardura politiko osoz eta herritarrekin batera erantzuteko konpromisoa hartzen du. Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen mugimenduak atzerapenik izan ez dezan, behar diren neurriak hartuz.*

5.- *Erabaki honen berri: Jaurlaritzari, HABEri, Euskalgintzari eta herri osoari emango zaio eta bakoitzak arduraz jokatzeko eskatzen diogu.*

Hernanin, 2012ko martxoan

Ondoren mozioa bozkatu da:

* Aldeko botoak: 13 (9 Bildu, 3 EAJ/PNV eta 1 H1!).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: 2 (Euskal Sozialistak)

Beraz, emandako botoak ikusita irakurritako mozioa onartu da.

8.- OSASUN ETA GIZARTE ONGINTZA PATRONATUKO ZUZENDARITZA BATZORDEAN ALDAKETA. - Alkate-Lehendakariak azaldu du; ordutegiarekin etab. arazo batzuk zirelako aldaketa bat proposatzen da, baina ez da horrela izango eta beraz, puntu hori bertan behera utziko dugu eta ez dugu aldaketarik egingo.

9.- JOSE RAMON CHICA RAMIREZ EUSKAL SOZIALISTAKO ZINEGOTZIAREN DIMISIOAREN BERRI EMATEA. - Alkate-Lehendakariak gaiaren inguruan zerbait esatekorik bazen galdetu du.

Estefania Morcillo (PSE) zinegotziak hitza hartu du: lehenik eta behin barkamena eskatu nahi dizuet Jose Ramonen izenean, izan ere kanpoan da lanean eta gaizki ibili da ondasunen aitorpena garaiz aurkezteko. Orduan, gardentasunaren izenan, aitorpena aurkezten ez den bitartean, nik uste, hobe izango litzatekeela oraingoz horrela uztea, ongi iduritzen bazaizue, edo ez dakit zer zeneukaten pentsatua, baina gure ustez hobe da alde aurretik aitorpena egitea.

Alkate-Lehendakariak: bai, berez ez da Plenoak erabaki behar duen zerbait, dimisioa berak aurkeztutakoa da, eta zuek baloratzen baduzue hurrengorako uztea ez dago arazorik.

Estefania Morcillo (PSE) zinegotziak hitza hartu du: ongi da, orduan hobeto deklarazio egin eta hurrengorako uztea.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK. - Iñaki Arratibel (H1!) zinegotziak hitza hartu du: Partehartze eta Giza Eskubide Batzordeak oraindik eratze prozesuan daude?

Alkate-Lehendakariak hitza hartu du: Bai, ez baditugu eratu, aurrekoan esan genuen bezala, eratze prozesuan daude. Eratzean horren berri izango duzue.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:15 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.